5. Zuzenketea proposamen, proposizino edo mozinoaren alda-ketea da.
6. Galderea udal organoak hartu gura dauzan neurrien edo hartu dauzan neurrien alderdien ganeko galderea da.
7. Adierazpen instituzionala Udalbatzako kide guztiek aurkeztutako proposamena, proposizino edo mozinoa da.
8. Agerraldia gobernu taldeko kideeren batek informazioa emotea borondatez edo beste talderen bateko zinegotziek eskatuta.

47. artikulua

1. Proposamen eta proposizinoak Udaleko Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko dira, beharrezko aurrerapenagaz, Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartu aurretik landu daitezkan, gaia dala eta jagoken Informazio Batzordean.
2. Osoko Bilkuran, proposamen eta proposizinoen eztabaidea ekimenaren egilearen esku-hartzeagaz hasiko da. Gero, talde guztiek esku-hartzeko txanda bi eukiko dabez, eta proposamena edo proposizino aurkeztu dauan taldeak itxiko dau txanda, araudi honetako 45-3 artikuluan aitatutako kasuetan salbu eta batzordearen erespenean aho batasuna dagoan kasuetan salbu.
3. Idazkiak ez dira proposamen edo proposizino lez onartuko, honako baldintzak badaukiez:
 - a) Proposamen edo proposizinoen ezaugarriak ez eukitea.
 - b) Osoko Bilkurearen eskumenekoak ez diran gai edo ekin-tzen erespene eman gura izatea.
 - c) Indarreko legeditik kanpoko jarduerak eukitea.
 - d) Personen ohore, jokabide edo duintasunari eragiten deutesen balio-judizinoak edo zehaztapen ezak sortzen dabezkan alusinoak egitea.

48. artikulua

1. Zinegotziek mozinoak emon ahal izango deutesiez Osoko Bilkureari, premiazko inguruabarren ondorioz.
2. Mozinoak idatziz egingo dira eta bilerearen aurreko eguneko eguerdiko ordu biak arte aurkeztu ahal izango dira, Idazkaritza Nagusian, gero gertaera esanguratsu eta aurre ikusi ezinak sortzen badira salbu; kasu horretan, Osoko Bilkuran aurkeztu ahal izango dira. Idazkaritza Nagusiak mozinoen barri emongo deutse talde politikoetako bozeramaileei eta atxiki bako zinegotziei.
3. Mozinoa egin dauanak premia arrazoituko dau, eta Osoko Bilkureak gaiaren premia botauko da. Premiazko dala adierazten bada, berau eztabaidatu eta botauko da.

Artículo 45

El Pleno adoptará acuerdos a iniciativa de la Alcaldía, de la Junta de Gobierno, de sus miembros, de los demás Concejales, de los grupos políticos y a iniciativa popular.

Artículo 46

A efectos del desarrollo de las sesiones y para definir el carácter de las intervenciones de las y los Concejales se utilizará la siguiente terminología:

1. Los proyectos de acuerdo de la Alcaldía y del resto del Equipo de Gobierno reciben el nombre de propuestas.
2. Los proyectos de acuerdo de los demás Concejales, de los grupos políticos y los de iniciativa popular reciben el nombre de proposiciones.
3. Ruego es la formulación de una propuesta de actuación dirigida a alguno de los órganos de gobierno municipal. los ruegos podrán ser debatidos pero nunca sometidos a votación.
4. Moción es la propuesta o proposición presentada fuera de los plazos establecidos por razones de urgencia. En todo caso será necesario votar la urgencia antes de proceder a su debate.
5. Enmienda es la modificación a una propuesta, proposición o moción
6. Pregunta es la cuestión planteada sobre medidas que el órgano municipal al que se refiera se proponga adoptar o sobre aspectos de las que haya adoptado.
7. Declaración institucional es la propuesta, proposición o moción presentada por todos los miembros de la Corporación.
8. Comparecencia es la dación de información por parte de algún miembro del equipo de gobierno de forma voluntaria o a petición de concejales de otro grupo.

Artículo 47

1. Las propuestas y proposiciones deberán presentarse ante la secretaría general del Ayuntamiento con antelación suficiente, al objeto de que puedan ser tratadas previamente a su inclusión en el orden del día del Pleno, en la Comisión Informativa correspondiente por razón de la materia.
2. El debate de las propuestas y las proposiciones en el Pleno se iniciará con una intervención del autor de la iniciativa, a la que seguirán dos turnos de intervenciones por parte de todos los Grupos, cerrando el grupo que ha presentado la propuesta o la proposición, salvo en los casos a que hace referencia al artículo 45-3 del presente reglamento y los que hubiera unanimidad en el dictamen de la comisión.
3. No se admitirá como propuestas o proposiciones aquellos escritos:
 - a) Que no tengan características de propuesta o proposición.
 - b) Que pretendan someter a dictamen asuntos o acciones que no sean competencias del Pleno.
 - c) Que comporten actuaciones fuera de la legalidad vigente.
 - d) Que hiciesen alusiones que impliquen juicios de valor o inexactitudes que afecten al decoro, conducta, o dignidad de las personas.

Artículo 48

1. Las y los Concejales, podrán someter a la consideración del Pleno una moción por razones de urgencia.
2. Las mociones se formularán por escrito y se podrán presentar hasta las catorce horas del día anterior al del Pleno, en la Secretaría General, salvo en el supuesto de que posteriormente se produzcan acontecimientos relevantes e imprevisibles, en cuyo caso se podrán presentar durante la sesión plenaria. La Secretaría General dará traslado de las mociones a los portavoces de los grupos políticos y a las y los Concejales no adscritos.
3. El autor de la moción justificará la urgencia, votándose esta por el Pleno. En el caso de declararse urgente se procederá al debate y votación de la misma.

49. artikulua

1. Zuzenketak ezabapen partzial, aldaketa, eransketa edo transakziozkoak izan ahalko dira, eta proposamena, proposizinoa edo mozinoa aurkezten dauanaren erabagiz aplikau ahal izango dira, Osoko Bilkuran edo Informazino Batzordean eztabaidatu ostean.

2. Zuzenketak idatziz aurkeztuko dira, udalburuari zuzenduta eta taldeko bozeramaileak sinatuta. Mozinoen zuzenketak eta proposamen edo proposizinoen transakzio-zuzenketak aurkeztu ahalko dira, aitzaten daben gaiaren deliberazioa hasi arte. Proposamen eta proposizinoen ganerako zuzenketa-motak gitxienez bilera hasi baino lanegun oso bateko aurrerapenagaz aurkeztu ahalko dira. Idazkaritza Nagusiak zuzenketen barri emongo deutse talde politikoetako bozeramaileei eta atxiki bako zinegotziei.

50. artikulua

1. Zinegotziek Gobernu Taldeari zuzendutako galderak ahoz edo idatziz egin ahal izango dabez, eta ahozko erantzuna eukiko dabe Osoko Bilkuran.

2. Galderak idatziz aurkeztu beharko dira Idazkaritza Nagusian, araudi honek ezarritako epeetan, edo ahoz, galderen txandan, bai Informazino Batzordeetan, bai Osoko Bilkuretan.

3. Udalburuak, Bozeramaileen Batza entzundakoan, ez dau galderak tramitatean onartuko, honako kasuetan:

- a) Udalaren eskumenen kanpoko gaiak aitzaten diranean.
- b) Galdera egin dauanaren edo beste edozein persona bereiziren interes eksklusibokoak diran galderak egiten diranean.
- c) Galderen aurrekarietan edo egikaritzan ohore-arauen kontrako berbak esaten edo kontzeptuak botatzen diranean.

4. Osoko Bilkurearen gai-zerrendan sartu ahalko dira Idazkaritzan idatziz aurkeztu diran galderak (ahozko erantzuna eukiko dabenak), jagokon bilera hasi baino gitxienez egutegiko zazpi egun arinago aurkeztuta, eta Informazino Batzordean aurkeztu diranak.

5. Ahozko galderei zuzenean erantzun ahal izango jake Osoko Bilkuran, eta, ezin bada, hurrengoan.

6. Idazkaritza Nagusiak aurreko Osoko Bilkuretan erantzuteko zain geratu diran ahozko galderen zerrendea erantsiko dau gai-zerrendan.

51. artikulua

1. Zinegotziek ahoz egin ahal izango dabez eskariak Osoko Bilkuran eta Informazino Batzordeetan, Gobernu Taldeari zuzenduta, eskaera eta galderen txandan.

2. Idatzizko eskariak Udaleko Idazkaritza Nagusian aurkeztu ahal izango dira, jagokon organoaren bilera baino lehen eta bilearearen bitartean.

3. Eskariak Alkatetzeari edo Zinegotzi Eskuordeturen bati zuzendutako jarduera-proposamenen ganekoak izango dira, gai zehatzei edo udal politika orokorrari jakogonez.

4. Alkatetzeak, Bozeramaileen Batza entzunda, ez dau eskariak tramitatean onartuko, honako kasu hauetan:

- a) Eskariaren berezko edukia ez daukien kasuetan.
- b) Eskariaren aurrekarietan edo egikaritzan ohore-arauaren kontrako berbak esaten edo kontzeptuak botatzen diranean.

5. Helburu berari buruzko eskariak edo helburua lotuta daukienak batu egin ahalko dira, tramitatuak izan daitezcan.

6. Osoko Bilkurearen gai-zerrendan sartu ahalko dira jagokon bilera baino gitxienez egutegiko zazpi egun lehenenago Idazkaritzan aurkeztu diran eskariak.

7. Eskariak Osoko Bilkuran eta Batzordean bideratuko dira eta eskariaren egileak berau azaltzeko txandea eukiko dau. Halan bajagoko, Gobernu Taldeari erantzuteko txandea emongo jako.

Artículo 49

1. Las enmiendas podrán ser de supresión parcial, de modificación, de adición y transaccionales y se adoptan por decisión de quien presenta la propuesta, proposición o moción tras el debate en el Pleno o en la Comisión Informativa.

2. Las enmiendas se presentarán mediante escrito dirigido al Presidente y suscrito por el portavoz del grupo. Las enmiendas a las mociones y las enmiendas transaccionales a las propuestas y proposiciones se podrán presentar hasta que se inicie la deliberación del asunto a que se refieran. Los demás tipos de enmiendas a las propuestas y proposiciones se podrán presentar con una antelación mínima de un día hábil completo respecto del inicio de la sesión. La Secretaría General dará traslado de las enmiendas a los portavoces de los grupos políticos y a las y los Concejales no adscritos.

Artículo 50

1. Las y los Concejales podrán formular preguntas de forma oral o escrita de respuesta oral en Pleno dirigidas al Equipo de Gobierno.

2. Las preguntas deberán presentarse por escrito ante la Secretaría General en los plazos establecidos por el presente reglamento o de forma oral en el turno de preguntas tanto en las Comisiones Informativas como en los Plenos.

3. El Presidente, oída la Junta de Portavoces, no admitirá a trámite las preguntas en los siguientes supuestos:

- a) Las que se refieran a asuntos ajenos al ámbito de competencia del Ayuntamiento.
- b) Las preguntas que sean de exclusivo interés personal de quien las formula o de cualquier otra persona singularizada.
- c) Las preguntas en cuyos antecedentes o formulación se profieran palabras o viertan conceptos contrarios a las reglas de cortesía.

4. Estarán en condiciones de ser incluidas en el orden del día del Pleno las preguntas escritas de respuesta oral presentadas en la Secretaría con al menos siete días naturales de antelación respecto de la sesión correspondiente y también ante la Comisión informativa durante la misma.

5. Las preguntas orales podrán ser contestadas directamente en el Pleno y de no ser posible, en el siguiente.

6. La Secretaría General adjuntará en el orden del día una relación de las preguntas orales pendientes de contestación en Plenos anteriores.

Artículo 51

1. Las y los Concejales podrán formular de forma oral ruegos en Pleno y en las Comisiones Informativas dirigidos al equipo de gobierno, en el turno de ruegos y preguntas.

2. Los ruegos escritos deberán presentarse ante la Secretaría General del Ayuntamiento antes o durante la sesión del órgano correspondiente.

3. Los ruegos versarán sobre propuestas de actuación dirigidas a la Alcaldía o a alguna Concejala Delegada de Gobierno en cuestiones concretas o de política municipal general.

4. La Alcaldía, oídos los Portavoces en su Junta, no admitirá a trámite los ruegos en los siguientes supuestos:

- a) Aquellas cuyo contenido no fuera propio de un ruego.
- b) Los ruegos en cuyos antecedentes o formulación se profieran palabras o viertan conceptos contrarios a las reglas de cortesía.

5. Podrán acumularse a efectos de tramitación los ruegos relativos al mismo objeto u objetos conexos entre sí.

6. Estarán en condiciones de ser incluidos en el orden del día del Pleno los ruegos presentados en la Secretaría con al menos siete días naturales de antelación respecto de la sesión correspondiente.

7. Los ruegos se sustanciarán ante el Pleno o en la Comisión dando lugar a un turno de exposición por el autor del mismo y a la contestación, en su caso, por parte del Equipo de Gobierno.

52. artikulua

1. Gobernuko ardurak daukiezan zinegotziak Osoko Bilkuran agertuko dira euren eskumeneko gai zehatzen ganean informazioa emoteko, bai eurak eskatuta, bai talde politiko edo atxiki bako zinegotziren baten ekimenez.

2. Udalburuak, Bozeramaileen Batzari entzun ostean, ez dau agerraldiak tramitatea onartuko, araudi honetako 50.3 artikuluan galderetarako aurreikusitako kasuetan.

3. Osoko Bilkurearen gai-zerrendan sartu ahalko dira jago-kon bilera baino gitxienez egutegiko zazpi egun lehenenago Idazkaritza Nagusian aurkeztu diran agerraldi-eskaerak.

4. Talde politikoek urtean hiru agerraldi-eskaera egin ahal izango dabez, eta, Osoko Bilkura guztietan, talde bakotzeko gehienez agerraldi-eskaera bat bideratu ahal izango da.

53. artikulua

1. Osoko Bilkureak interes orokorreko adierazpen instituzionalak ontzat emon ahalko dauz, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legeko 25, 26 eta 28. artikuluetan zenbatutako gaien ganekoak izan zein ez.

2. Orokorrean, Idazkaritza Nagusian gitxienez egutegiko zazpi egun baino lehen aurkeztuko saiakera egingo da, gai-zerrendan sartu daitezkan. Halanda be, premiaz aurkeztu ahal izango dira, arau orokor hori bete ezin danean.

III. ATALA

UDALAREN ARAU OROKORRAK ETA AURREKONTU OROKORRAK ONTZAT EMOTeko PROZEDUREA**54. artikulua**

1. Udalaren aurrekontu orokorra Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ontzat emongo da, Araudi honetan ezarritakoaren arabera eta artikulua honetan adierazoko diran zehaztapanetan oinarrituz.

2. Alkatetzeari egingo dau Udalaren aurrekontu orokorraren proiektua.

3. Aurrekontuaren proiektua udal talde eta atxiki bako zinegotzietan aurkeztuko jake, Ogasun Batzordeko eztabaida baino gitxienez egutegiko 15 egun lehenago.

4. Ogasun Batzordeak Osoko Bilkurara eroango dau aurrekontuaren erespena, ganerako Informazio Batzordeetan eztabaidatu danean.

5. Herritarren partaidetarako bitartekoak bermatuko dira udal aurrekontuak egitean, eta, horretarako, prozedura egokiak ezarriko dira.

6. Osoko Bilkureak behin betiko ontzat emon dauzan aurrekontuen edukiak gehiago hedatzea ahalbidetuko da.

55. artikulua

1. Artikulu honetan eta atal honetako hurrengoetan adierazitakoan oinarrituko da ordenantza, araudi eta ganerako xedapen orokorrak egiteko edo aldatzeko prozedura, aurrekontuan tramitazioa eta onarpena salbu.

2. Udal arauak ontzat emoteko ekimena honakoei jagoke:

- Alkatetzeari edo zinegotzi eskuordetuari.
- Zinegotzietan.
- Herritarren ekimenari.

3. Proiektu lez tramitauko dira Alkatetzeari eta zinegotzi eskuordetuek aurkeztutakoak. Ganerako kasuak proposizino lez tramitauko dira.

56. artikulua

1. Osoko Bilkurako Burutzak arau orokorrak tramitetako ezarritako epeak luzatzeko eta murrizteko erabagi ahalko dau, hori justifiketan dauan aparteko arrazoirik badau.

Artículo 52

1. Las y los Concejales con responsabilidades de gobierno comparecerán ante el Pleno para informar sobre un asunto determinado de su competencia, bien a petición propia, bien a iniciativa de un grupo político o concejal no adscrito.

2. El Presidente, oída la junta de portavoces, no admitirá a trámite las comparecencias en los mismos supuestos previstos para las preguntas por el artículo 50.3 de este reglamento.

3. Estarán en condiciones de ser incluidas en el orden del día del pleno las solicitudes de comparecencia presentadas en la secretaría general con al menos siete días naturales de antelación respecto de la sesión correspondiente.

4. Los grupos políticos dispondrán de tres peticiones de comparecencias anuales, pudiendo sustanciar, como máximo y en cada pleno ordinario, una solicitud de comparecencia por cada grupo político.

Artículo 53

1. El Pleno podrá aprobar declaraciones institucionales sobre cuestiones de interés general, relativas o no a las materias enumeradas en los artículos 25, 26 Y 28 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

2. Por regla general se procurará presentarlas con al menos siete días naturales de antelación en la secretaria general para su inclusión en el orden del día, aunque se pueden presentar por urgencia cuando no sea posible cumplir la regla general.

SECCIÓN III

PROCEDIMIENTO PARA LA APROBACIÓN DE NORMAS GENERALES Y DEL PRESUPUESTO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO**Artículo 54**

1. El Presupuesto General del Ayuntamiento se debatirá y aprobará en el Pleno conforme a lo dispuesto en este Reglamento con las especificidades que se señalan en este artículo.

2. El Proyecto de Presupuesto general del Ayuntamiento lo elabora la Alcaldía.

3. El Proyecto de Presupuesto se presentará a los grupos municipales y concejales no adscritos, con al menos 15 días naturales de antelación al debate en la Comisión de Hacienda.

4. La Comisión de Hacienda elevará al Pleno el dictamen del presupuesto, una vez debatida en las demás Comisiones Informativas.

5. Se garantizarán los medios para la participación popular en la elaboración de los presupuestos municipales estableciendo para ello los procedimientos adecuados.

6. Se posibilitará la más amplia divulgación de los contenidos de los presupuestos definitivamente aprobados por el Pleno municipal.

Artículo 55

1. El procedimiento de elaboración de ordenanzas, reglamentos y demás disposiciones de carácter general, así como a sus modificaciones, salvo la tramitación y aprobación de los presupuestos, se regirá por lo dispuesto en este artículo y en los siguientes de esta sección.

2. La iniciativa para la aprobación de normas municipales corresponde a:

- A la Alcaldía o Concejal Delegado.
- Las y los Concejales.
- La iniciativa ciudadana.

3. Se tramitarán como proyectos aquellos que se hayan presentado por la Alcaldía y las y los Concejales Delegados. El resto de supuestos se tramitarán como proposiciones.

Artículo 56

1. La Presidencia del Pleno podrá acordar la prórroga o reducción de los plazos establecidos para la tramitación de normas generales, si concurre una causa extraordinaria que lo justifique.

2. Salbuespeneko kasuetan salbu, luzapenak ez dira epearen zenbatekoa baino handiagoak izango eta murrizketak ez dira epearen erdia baino txikiagoak izango.

57. artikulua

1. Proiektuak Batzordeen erespenpean jartzen diranean, jagoen espedientea euki beharko dabe.

2. Alkatetzak edo Zinegotzigo Eskuordetuak arau-ekimena betetan dabenean, nahitaezko txostenakaz, proiektua eta dokumentazio osogarría idazkari nagusiari bialduko jakoz. Horrek erespena emoteko eskumena daukan Batzordera bialduko dauz eta hamar eguneko epea emongo dau, Batzordeko kideek proiektua jaso dabenetik zenbatzen hasita, zuzenketak aurkezteko. Epe hori ez da emongo talde guztiek proiektuaren ganeko adostasuna lortzen badabe. Kasu horretan, zuzenean aurkeztu da, Batzordeak erespena emon dagion.

3. Proiektuak eta zuzenketak eztabaidatuta, Ogasun Batzordeak erespena emongo dau eta Osoko Bilkurara joko da, hasieran ontzat emon daian.

4. Hasieran ontzat emoteko erabagian, Osoko Bilkureak informazio publikorako eta entzunaldirako epea edegiko deutse interesdunei, aldi batez. Aldi horrek, edozelan be, Toki Araubidearen Legediak ezarritako gutxienezko 30 egunak errespetauko dauz.

5. Idazkaritza Nagusiak hasieran ontzat emoteko erabagiaren barri emongo deutse Alkatetzeari edo Zinegotzigo Eskuordetuari, eskumena daukan Zinegotzigoak herritarren erreklamazioak eta iradokizunak jaso daizan.

6. Legedian ezarritako bitartekoen bidez iragartzeaz gan, arautestua Udalaren web orriaren bidez hedatuko da.

7. Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez bada, eta, beraz, ordura arte behin-behinekoa zan onarpena behin betiko bihurtzen bada, Idazkaritza Nagusiak kudeaketa egokiak egin beharko dauz, Osoko Bilkureari behin betiko onarpenaren erabagiaren barri emoteko, egingo dan hurrengo bileran.

8. Informazio Batzordearen erespenaren ostean, erabagi-proposamena eroango da Osoko Bilkurara, zehaztaper bigaz: halan bajagoko aurkeztu diran erreklamazio eta iradokizunen ebazpena, eta ebazpen horren emoitazko testuaren behin betiko onarpena. Proposamenagaz batera txosten bat be aurkeztu beharko da, eta, bertan, alegazioen balorazioa jasoko da.

9. Hasierako testuan aldaketarik sartu ez bada, Batzordearen eta Osoko Bilkurearen tramitazioan ezin izango da zuzenketarik aurkeztu.

58. artikulua

1. Udalbatzako kideen proposizinoen tramitazioa araudi honetan arau-proiektuen ganean ezarritako arauetan oinarrituko da, honako berezitasunakaz:

a) Proposizino aurkeztean, arrazoen eta jagokozan aurrekari azalpena jasota, hogeta hamar egunez egongo da txosten juridikopean, eta, halan bajagoko, txosten tekniko eta ekonomikopean. Txosten horrek igorritakoan, arau-proiektuetarako aurreikusitako prozedura segiduko da.

b) Entzunaldirako eta jente-aurrean jartzeko epea amaitzean, idazkariak jasoten diran erreklamazioak eta iradokizunak Osoko Bilkura eskudunaren Batzordera bialduko dauz, balora daitezcan, eta, halan bajagoko, proposizinoaren testu barria egin daiten.

2. Udal hauteskundeetan hautatzeko eskubide aktiboa daukien herritarrek herri-ekimena baliatu ahal izango dabe, erabagiedo jarduera-proposamenak nahiz araudi proiektuak aurkeztuta udal eskumeneko gaien inguruan. Ekimen horrek udalerriko herritarren gutxienez 100eko 20k sinatu beharko dauz.

2. Salvo casos excepcionales, las prórrogas no serán superiores a otro tanto del plazo, ni las reducciones inferiores a su mitad.

Artículo 57

1. Los proyectos, al someterlos a la consideración de las Comisiones, se acompañarán del expediente correspondiente.

2. Una vez ejercida la iniciativa normativa por la Alcaldía o Concejalía Delegada, con los informes preceptivos, el proyecto junto con la documentación complementaria, será enviado al Secretario General, quien se lo remitirá a la Comisión competente para su dictamen y abrirá un plazo de diez días, contado desde la recepción del proyecto por los miembros de la Comisión, para la presentación de enmiendas. Este plazo no se abrirá cuando exista acuerdo de todos los grupos respecto al proyecto. En este caso, se presentará directamente para su dictamen por la Comisión.

3. Debatidos los proyectos y las enmiendas, se redactará dictamen por la Comisión de Hacienda y se elevarán al Pleno para su aprobación inicial.

4. En el acuerdo de aprobación inicial, el Pleno dispondrá la apertura del período de información pública y audiencia a los interesados por un tiempo que, en todo caso, respetará el plazo mínimo de treinta días establecido por la Legislación de Régimen Local.

5. La Secretaría General dará traslado del acuerdo de aprobación inicial a la Alcaldía o Concejalía Delegada, para que la Concejalía competente reciba las reclamaciones y sugerencias de los ciudadanos.

6. Además del anuncio por los medios establecidos en la legislación, el texto normativo se difundirá a través de la página web del Ayuntamiento.

7. En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia y se convierta por ello en definitivo el acuerdo de aprobación de la norma hasta entonces provisional, la Secretaría General, llevará a cabo las gestiones oportunas para dar cuenta de la aprobación definitiva al Pleno en la siguiente sesión que celebre.

8. Tras el dictamen de la Comisión Informativa se elevará al Pleno una propuesta de acuerdo con dos determinaciones: la resolución de las reclamaciones y sugerencias presentadas en su caso, y la aprobación definitiva del texto resultante de dicha resolución. La propuesta deberá ir acompañada de un informe que contenga la valoración de las alegaciones.

9. En el caso de que no se hubieran introducido modificaciones del texto inicial, no se podrán presentar enmiendas en el trámite de Comisión ni el de Pleno.

Artículo 58

1. La tramitación de las proposiciones de los corporativos se regirá por las normas establecidas en el presente reglamento respecto de los proyectos normativos, con las especialidades siguientes:

a) Presentada una proposición, acompañada de la exposición de motivos y de los antecedentes correspondientes, se someterá por un plazo de treinta días a informe jurídico y, en su caso, a informe técnico y económico. Emitidos estos informes, se seguirá el procedimiento previsto para los proyectos normativos.

b) Tras el período de audiencia e información pública, el Secretario remitirá las reclamaciones y sugerencias que se reciban a la Comisión del Pleno competente, a efectos de que proceda a su valoración y elabore, en su caso, un nuevo texto de la proposición.

2. Los vecinos que gocen de derecho de sufragio activo en las elecciones municipales podrán ejercer la iniciativa popular presentando propuestas de acuerdo o actuaciones o proyectos de Reglamentos en materias de la competencia municipal. Dichas iniciativas deberán ir suscritas al menos por un porcentaje del 20 por 100 de vecinos del municipio.

IV. ATALA
BOTAZINOEN GANEAN

59. artikulua

1. Zinegotzien botoa personala eta eskuordetu ezinezkoa da.
2. Aldeko edo aurkako botoa emon ahal da, eta, modu berean, Udalbatzako kideak botoa ematek abstentitu daitezke.
3. Jagokoa botazinoaren ondoretarako, gaien deliberazioa hastean batzar-aretotik joan diran eta botazinoaren momentuan ez dagozan zinegotziak abstentitu egin dirala ulertuko da. Botazinoak egin aurretik sartzen badira batzar-aretora, botoa emon ahalko dabe.
4. Botazinoan bardinketarik egon ezkerro, barrero botauko da, eta, bardinketeak segitzen badau, Alkatetzearen kalidade-botoak erabagiko dau.

60. artikulua

1. Botazinoak ohikoak, izenezkoak eta isilpekoak izan daitezke.
2. Adostasuna, desadostasun eta abstentzioa ohiko zeinuen bidez adierazten dabezanak dira ohiko botazinoak.
3. Izenezkoak honakoak dira: abizena oinarritzat hartu eta alfabetoaren arabera deituta egiten diran botazinoak. Udalburua izaten da beti botoa emoten azkena, eta Udalbatzako kide guztiek, deitu egiten jakenean, «bai», «ez» edo «abstentitu egingo naz» erantzuten dabe ozenki.
4. Isilpekoak honakoak dira: txartel bidez egiten diranak, Udalbatzako kideek txartela hautesontzian sartuta.

61. artikulua

1. Ohiko botazinoak izango da sistema normala.
2. Izenezko botazinoak egiteko udal talde batek eskaerea egin beharko dau, eta Osoko Bilkuran, ohiko botazinoan, gehiengo soilak emon beharko dau ontzat.
3. Isilpeko botazinoak Alkatetza erabagitzeko erabiliko da. Modu berean, botazinoak isilpekoak izan ahalko da gaiak zuzenbide konstituzionalari, ohoreari, intimidade personal edo familiarri edo norberaren irudiari eragiten badeutso, gehiengo osoak halan erabagita.

62. artikulua

1. Osoko Bilkureak, orokorrean, bertaratutako kideen gehiengo soille hartzen dauz erabagiak. Aldeko botoak aurkakoak baino gehiago diranean, gehiengo soilak dago.
2. Aldeko botoak Udalbatzako kideen legezko kopuruaren erdia baino gehiago diranean ulertuko da gehiengo osoa dagoela.
3. Hauteskunde Araubide Orokorraren bagilaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 182. artikuluko lehenengo paragrafoan ezarritako prozedurearen arabera ez badago izentatzeko hautagai edo ordeko gehiengo, indarreko legedian aurreikusitako partaidetza- eta botazino-kuorumak zuzenean izango dira Udalbatza subsistenteko kideen berezko zenbakian aitatutakoak, adierazotako hauteskunde-arauean ezarritakoa segiduta.

63. artikulua

1. Gaia eztabaidatu ostean, botazinoari ekingo jako.
2. Botazinoak hasi aurretik, udalburuak botazinoaren baldintzak azalduko dauz modu argi eta motzean.
3. Botazinoak hasi danean, ezin izango da ezelan be eten. Botazinoak garatzen dan bitartean, udalburuak ez dau esku hartzeko baimenik emongo eta zinegotziek ezingo dabe aretoan sartu edo bertatik urten.
4. Ohiko botazinoak amaitzerakoan, idazkari nagusiak botazinoaren emoitzea adierazoko dau.

SECCIÓN IV
DE LAS VOTACIONES

Artículo 59

1. El voto de las y los Concejales es personal e indelegable.
2. El voto puede emitirse en sentido afirmativo o negativo, pudiendo los miembros de la Corporación abstenerse de votar.
3. A efectos de la votación correspondiente se considerará que se abstienen las y los Concejales que se hubieran ausentado del salón de sesiones una vez iniciada la deliberación de un asunto y no estuviesen presentes en el momento de la votación. En el supuesto de que se hubieran reintegrado al salón de sesiones antes de la votación podrán tomar parte en la misma.
4. En el caso de votaciones con resultado de empate, se efectuará una nueva votación y, si persistiera el empate, decide el voto de calidad de la Alcaldía.

Artículo 60

1. Las votaciones pueden ser ordinarias, nominales y secretas.
2. Son ordinarias las que se manifiestan por signos convencionales de asentimiento, disentimiento o abstención.
3. Son nominales aquellas votaciones que se realizan mediante llamamiento por orden alfabético de apellidos y siempre en último lugar el Presidente y en la que cada miembro de la Corporación, al ser llamado, responde en voz alta «sí», «no» o «me abstengo».
4. Son secretas las que se realizan por papeleta que cada miembro de la Corporación vaya depositando en una urna.

Artículo 61

1. El sistema normal será la votación ordinaria.
2. La votación nominal requerirá la solicitud de un grupo municipal aprobada por el Pleno por una mayoría simple en votación ordinaria.
3. La votación secreta se utilizará para la elección de la Alcaldía. También podrá ser secreta la votación cuando el asunto afecte al derecho constitucional, al honor, la intimidad personal o familiar o la propia imagen, si así se acuerda por mayoría absoluta.

Artículo 62

1. El Pleno adopta sus acuerdos, como regla general, por mayoría simple de los miembros presentes. Existe mayoría simple cuando los votos afirmativos son más que los negativos.
2. Se entenderá que hay mayoría absoluta cuando los votos afirmativos son más de la mitad del número legal de miembros de la Corporación.
3. En el caso de que, de acuerdo con el procedimiento establecido en el párrafo primero del artículo 182 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, no quedasen más posibles candidatos o suplentes a nombrar, los quórum de asistencia y votación previstos en la legislación vigente se entenderán automáticamente referidos al número de hecho de miembros de la Corporación subsistente, de conformidad con lo dispuesto en el citado precepto electoral.

Artículo 63

1. Finalizado el debate de un asunto, se procederá a su votación.
2. Antes de comenzar la votación el presidente planteará clara y concisamente los términos de la misma.
3. Una vez iniciada la votación, no puede interrumpirse por ningún motivo. Durante el desarrollo de la votación el presidente no concederá el uso de la palabra y ningún concejal podrá entrar en el salón o abandonarlo.
4. Terminada la votación ordinaria, el Secretario General emitirá el resultado de la votación.

5. Botazinoa izenezkoa edo isilpekoa bada, amaitzerakoan, idazkari nagusiak botoak zenbatuko dauz eta emoitzea ozenki jakinarazoko dau. Ostean, udalburuak hartutako erabagia zein dan adierazoko dau.

64. artikulua

Erabagia adierazotakoan, eztabaidan parte hartu ez daben taldeek edo eztabaidaren ostean botoa aldatu dabeneke euren botoaren arrazoa azaltzeko txandea eskatu ahalko deusie udalburuari.

65. artikulua

Alkatetzearen zentsurearen mozinoa eta berorrek azaldutako konfiantza-gaia publikoki botauko dira, izenezko deialdia eginda, eta hauteskunderen legedia orokorrean xedatutakoan oinarrituko da, bere alderdi guztietan.

V. ATALA

AKTAK

66. artikulua

Bilera bakotxetik idazkari nagusiak aktea egingo dau, indarreko legedian ezarritako edukiagaz.

1. EAeko hizkuntza ofizialetan idatziko dira aktak.
2. Aktak Larrabetzuko Udaleko web orrian argitaratuko dira, Osoko Bilkureak ontzat emon eta bost egunetara.

II. KAPITULUA

ALKATETZEA

67. artikulua

1. Alkatetzek udalerriko gehieneko ordezkartzea da. Araudi Organikoak egotzen deusazan funtzinoei kalterik eragin barik, Osoko Bilkurearen eta Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak deitu eta zuzentzen dauz, politika, gobernua eta udal administrazioa bideratzen dauz, eta antolamendu juridikoak egotzen deusazan generako funtzinoak betetan dauz.

2. Alkatetzek Osoko Bilkurearen aurrean erantzuten dau bere kudeaketa politikoaren ganean.

68. artikulua

Alkatetzeari jagokoz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legeak egotzitako eskumenak, bai eta legeek edo Estaduko edo Autonomia Erkidegoko legediak edo Lurralde Historikoko araudiak beren beregi udalari egotzen dautzanak eta beste udal organo batzuei ez jagokozanak.

69. artikulua

1. Alkatetzek ebazpenen bidez eskuordetu ahalko dauz Tokiko Gobernu Batzarra, bere kideak edo generako zinegotziak, legean egotzen diran eskumenak beterako, horreek ezarritako baldintzetan.

2. Aurreko atalean adierazotako eskuordetzeak honakoak hartuko dauz barruan: jagokozan zerbitzuak zuzentzeko eskumena eta orokorrean horrek zuzentzeko eskumena, bai eta hirugarrenei eragiten deutseen egintzen bidez ebazteko eskumena be. Beren beregi adierazo ezean, arloa edo zerbitzua modu egokian egokitze beharrezko diranak sartzen dira eskuordetze horreetan.

3. Modu berean, Alkatetzek edozein zinegotzi eskuordetu ahalko dau atalean sartzen diran gai jakinak zuzendu eta kudeatzeko. Kasu honetan, eskuordetze orokor bat daukan zinegotziak ahalmena izango dau bere arloan berariazko zereginetarako eskuordetzeak daukiezan zinegotzien jarduerara koordinetako. Eskuordetze bereziak hiru motakoak izan daitezke:

- a) Proiektu edo gai jakin baten ganekoak.
- b) Zerbitzu jakin baten ganekoak.
- c) Barruti edo auzo baten ganekoak.

5. Si la votación es nominal o secreta, una vez terminada el secretario general computará los sufragios emitidos y anunciará en voz alta su resultado, en vista del cual el presidente proclamará el acuerdo adoptado.

Artículo 64

Proclamado el acuerdo, los grupos que no hubieren intervenido en el debate o que tras éste hubieren cambiado el sentido de su voto, podrán solicitar del presidente un turno de explicación de voto.

Artículo 65

La votación de la moción de censura a la Alcaldía y de la cuestión de confianza planteada por éste será pública, se realizará mediante llamamiento nominal y se regirá en todos sus aspectos por lo dispuesto en la legislación electoral general.

SECCIÓN V

LAS ACTAS

Artículo 66

De cada sesión se extenderá acta por el Secretario General, con el contenido que se establece en la legislación vigente.

1. Las actas se elaborarán en los idiomas oficiales de la CAPV.
2. Las actas se publicarán en la página Web del Ayuntamiento de Larrabetzu a los cinco días de su aprobación por parte del Pleno.

CAPÍTULO II

LA ALCALDÍA

Artículo 67

1. La Alcaldía ostenta la máxima representación del municipio. Sin perjuicio de las funciones que le asigne el Reglamento Orgánico, convoca y preside las sesiones del Pleno, de la Junta de Gobierno Local, dirige la política, el gobierno y la administración municipal, y ejerce las demás funciones que le atribuye el ordenamiento jurídico.

2. La Alcaldía responde de su gestión política ante el Pleno.

Artículo 68

Corresponden a la Alcaldía las competencias que le asigne la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, así como las que le atribuyan expresamente las leyes o aquellas que la Legislación del Estado o de la Comunidad Autónoma o la normativa del Territorio Histórico asignen al municipio y no se atribuyan a otros órganos municipales.

Artículo 69

1. La Alcaldía podrá delegar mediante Resolución las competencias que le atribuyen las leyes, en los términos establecidos por ellas, en la Junta de Gobierno Local, en sus miembros y en los demás Concejales.

2. Las delegaciones referidas en el apartado anterior abarcarán tanto la facultad de dirigir los servicios correspondientes como la de gestionarlos en general, incluida la facultad de resolver mediante actos administrativos que afecten a terceros. Salvo mención expresa, se incluyen en dichas delegaciones todas aquellas que resulten necesarias para la adecuada gestión del área o servicio.

3. Podrá también la Alcaldía efectuar delegaciones en cualquier Concejales para la dirección y gestión de asuntos determinados incluidos en el apartado anterior. En este caso, el Concejales que ostente una delegación genérica tendrá la facultad de coordinar la actuación de las y los Concejales con delegaciones específicas en su área. Estas delegaciones especiales podrán ser de tres tipos:

- a) Relativas a un proyecto o asunto determinado.
- b) Relativas a un determinado servicio.
- c) Relativas a un distrito o barrio.

4. Alkatetzeak egindako eskuordetzeak, ebazpena egin eta biharamonean egongo dira indarrean, ebazpenean bestelakorik esaten ez bada, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzeari kalterik eragin barik.

70. artikulua

1. Alkateordeei jagoke Alkatetzea funtzino guztietan ordezkatzea, izentapenaren ordenaren arabera, honako kasuetan: alkatetza ez egotea, gaixorik egotea edo bere eskumenak betetan ixten ez deustan eragozpenen bat eukitea. Ganera, alkateordeek kargua hutsik dagoanean bere funtzinoak bete beharko badez, ordezkoak kargua hartu arte.

Modu berean, bilera baten Alkatetzeak ezin badau esku hartu, bilerako puntu jakin bategaz lotuta, jagokon alkateordeak ordezkatuko dau zuzenean eta bera izango da burua.

2. Alkatetzea ez dagoalako edo gaixorik dagoalako ordezkatu behar bada, bere funtzinoak beteko dabezanak ezin izango dauz balio barik itxi Alkatetzeak emondako eskuordetzeak.

71. artikulua

1. Alkatetzeak bere karguari uko egin ahalko deusta eta ez dau, horregaitik, zinegotzi izaerea galduko. Ukapena baliozkoa izan daiten, ukapenaren idazkiaren barri emon beharko jako Udalaren Osoko Bilkureari.

2. Kasu horretan, hauteskundeen legedian xedatutakoaren arabera beteko da hutsik geratutako kargua.

72. artikulua

Alkatetzearen bandoak honetarako izan daitezke: xedapen orokorretan datozen betebeharrak gogorarazteko edo aparteko premiagaitik arauak ez apliketean (aldi baten eta kasu zehatzetan) eragingo daben neurriak hartzea gogorarazteko. Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko dira, bai eta herritarren informazio publikorako egokitzen jaten diran bitartekoetan be. Osoko Bilkureari berehala emongo jako aparteko premiagaitik hartu beharreko Alkatzearen bandoen barri.

73. artikulua

Alkatetzearen erantzukizun politikoa Alkatetzearen zentsuraren mozinoaren edo horrek aurkeztutako konfiantza-gaiaren bidez eskatu ahal da, eta horreek hauteskundeen araubidearen legedian aurreikusitakoaren arabera egingo dira.

III. KAPITULUA ALKATEORDEAK

74. artikulua

1. Alkatetzeak askatasunez izentau eta botako dauz alkateordeak, Tokiko Gobernu Batzarreko kideen artean. TGB ez dagoan kasuetan, zinegotzian artean izentauko dau.

2. Alkatetzearen ebazpenaren bidez egingo dira izentapenak eta kargu-ixteak, eta Osoko Bilkureari horreen barri emongo jako egingo dan lehenengo batzarrean Ganera, izentaei banan-banan jakinarazoko jake eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da. Halan be, indarrean egongo da Alkatetzeak ebazpena sinatu eta biharamonetik zenbatzen hasita, bertan bestelakorik azaltzen ez bada.

75. artikulua

Alkateordeek alkateak ordezkatzeko euren izentapenaren ordena segiduko dabe.

76. artikulua

Alkateorde izaerea honela galdu daiteke:

- Alkatetzeak kargua ixteko ebazten badau.
- Idatziz adierazotako berariazko ukapenaren bidez.
- Tokiko Gobernu Batzarreko kide izateko gaitasuna galduta.

4. Las delegaciones de competencias que efectúe la Alcaldía surtirán efectos desde el día siguiente al de la fecha de la Resolución, salvo que en el mismo se disponga otra cosa, sin perjuicio de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Artículo 70

1. Corresponde a los Tenientes de alcalde sustituir en la totalidad de sus funciones y por el orden de su nombramiento, a la Alcaldía, en los casos de ausencia, enfermedad o impedimento que imposibilite a éste para el ejercicio de sus atribuciones, así como desempeñar sus funciones en los supuestos de vacante hasta la toma de posesión de quien le reemplace.

Igualmente, cuando durante la celebración de una sesión la Alcaldía hubiera de abstenerse de intervenir, en relación con algún punto concreto de la misma, será sustituida automáticamente en la presidencia por el Teniente de Alcalde a quien corresponda.

2. En los supuestos de sustitución por razones de ausencia o enfermedad, quien asuma sus funciones no podrá revocar las delegaciones que aquella hubiere otorgado.

Artículo 71

1. La Alcaldía podrá renunciar a su cargo sin perder por ello la condición de concejal. Para la validez de la renuncia, deberá hacerse efectiva mediante la dación de cuenta al Pleno de la Corporación del escrito de renuncia.

2. En tal caso, la vacante se cubrirá en la forma establecida en la legislación electoral.

Artículo 72

Los bandos de la Alcaldía pueden ser simplemente recordatorios de una obligación o deber contenidos en las disposiciones de carácter general; o de adopción de medidas que excepcionen, singular y temporalmente, la aplicación de las normas, por razones de extraordinaria urgencia. Serán publicados en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y por aquellos otros medios que se consideren oportunos para la información pública de los ciudadanos. De los bandos de la Alcaldía adoptados por razones de extraordinaria urgencia, se deberá dar cuenta inmediata al Pleno.

Artículo 73

La responsabilidad política de la Alcaldía es exigible por medio de la moción de censura a la Alcaldía y de la Cuestión de Confianza presentada por éste, que se sustanciarán conforme a lo previsto en la legislación de régimen electoral.

CAPÍTULO III

LOS TENIENTES DE ALCALDE

Artículo 74

1. Los Tenientes de Alcalde serán designados y removidos libremente por la Alcaldía de entre los miembros de la Junta de Gobierno Local y, donde ésta no exista, de entre las y los Concejales.

2. Los nombramientos y los ceses se harán mediante resolución de la Alcaldía de la que se dará cuenta al Pleno en la primera sesión que celebre, notificándose, además, personalmente a los designados, y se publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia», sin perjuicio de su efectividad desde el día siguiente de la firma de la resolución por la Alcaldía, si en ella no se dispusiera otra cosa.

Artículo 75

Los Tenientes de Alcalde sustituyen al Alcalde por el orden establecido en su nombramiento.

Artículo 76

La condición de Teniente de Alcalde se pierde por:

- Resolución de Alcaldía decidiendo el cese.
- Renuncia expresa manifestada por escrito.
- Pérdida de la condición de miembro de la Junta de Gobierno Local.

IV. KAPITULUA
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

77. artikulua

1. Kapitulu honetan ezarritakoa aplikagarria izango da Udal-erako Osoko Bilkureak kide anitzeko organo hau eratzea erabagiten dauanean.

2. Tokiko Gobernu Batzarra kide anitzeko organoa da eta Alkatetza da burua, honako funtzinoakaz:

a) Alkatetzeari bere eskumenak betetan laguntzea.

b) Alkatetzeak edo beste udal organo batek eskuordetutako edo legeek esleitutako eskumenak betetea.

3. Alkatetzeari jagoko Tokiko Gobernu Batzarreko kideak askatasunez izentau eta banantzea, eta kideen kopurua ezin izango Osoko Bilkurearen legezko adierazpenaren kopuruaren herena baino handiago izan (Alkatetzeaz gan).

4. Udaleko idazkari nagusia joango da Tokiko Gobernu Batzarraren bileretara eta kide anitzetako organo honen funtzino fede-emoileak beteko dauz.

78. artikulua

1. Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak Alkatetzeak deialdian egin ostean egingo dira, eta ohikoak, aurrez ezarritako aldizkako-tasunekoak eta apartekoak izan ahalko dira, bai eta premiazko be.

2. Ohiko eta aparteko bileren deialdiagaz batera gai-zerrenda be emongo da, eta gitxienez 14 orduko aurrerapenagaz egingo da hori, deialdia kideei bialduta.

3. Premiazko izaerea daukien aparteko bilerak egin ahal izateko, eperik bako deialdia egin ostean, Alkatetzeak bilera hori egin leikela erabagi beharko dau eta beharrezko quoruma egon beharko da. Halan be, aurretik adierazo beharko da bileraren premia, kideen gehiengoaren aldeko erabagiagaz.

4. Tokiko Gobernu Batzarraren baliozko eraketarako, bilerak, deliberazioak eta erabagiak egitearen ondoreakaz, beharrezkoa izango da kideen gehiengo osoa bertaratzea; quorumik ez balego, bigarren deialdia egingo da, lehenengoa egiteko ordua baino ordu bete beranduago, eta, kasu horretan, kideen herena bertaratzea nahikoa izango da. Alkate-udalburua eta idazkaria, edo, halan bajagoko, ordezkokoak egon beharko dira bileran.

5. Tokiko Gobernu Batzarra ohiko izaereagaz bilduko da, hama-bost egunean behin. Halan be, Tokiko Gobernu Batzarrak funtzio-namendurako eta hartu beharreko proposamen eta ebazpenak egokiro prestatzeko ontzat emon dauzan arauetan ezarritakoari ez jako kalterik eragingo.

6. Bilerara joan ahalko dira bertakoak ez diran zinegotziak edo udal administrazinoko arlo edo zerbitzuetako behargin arduradunak, Alkatetzeak beren beregi deitu badauz.

7. Tokiko Gobernu Batzarraren deliberazioak ez dira publikoak.

79. artikulua

1. Tokiko Gobernu Batzarraren erabagiak aktan jaso beharko dira eta aktea idazkariak egingo dau.

2. Bilera bakotxeko aktan honakoak jaso beharko dira, gitxienez: bileraren hasierako eta amaierako data eta ordua, udalburuaren eta generako bertaratuen izenak, landu diran gaiak eta hartu diran erabagiak.

3. Idazkariak idatzitako aktea hurrengo ohiko bileran emongo da ontzat. Aktak Tokiko Gobernu Batzarreko akta-liburuan sartuko dira. Liburu hori idazkaritza Nagusiak balioztatu eta zainduko dau eta Osoko Bilkurearen akta-liburuaren araubide bardina eukiko dau.

4. Behar bezala ontzat emon diran aktak legezko xedepengaitik nahitaezkoak diran organismo eta erakundeek igorri eta jakinarazoko jakez.

CAPÍTULO IV
LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

Artículo 77

1. Lo dispuesto en el presente capítulo será de aplicación cuando el Ayuntamiento pleno acuerde la constitución de este órgano colegiado.

2. La Junta de Gobierno Local es el órgano colegiado, presidido por la Alcaldía al que corresponde:

a) La asistencia a la Alcaldía en el ejercicio de sus atribuciones.

b) Las atribuciones que la Alcaldía u otro órgano municipal le delegue o le atribuyan las leyes.

3. Corresponde a la Alcaldía nombrar y separar libremente a los miembros de la Junta de Gobierno, cuyo número no podrá exceder de un tercio del número legal de miembros del Pleno, además de la Alcaldía.

4. A las sesiones de la Junta de Gobierno Local asistirá el Secretario General del Ayuntamiento que ejercerá las funciones fedatarias de este órgano colegiado.

Artículo 78

1. Las sesiones de la Junta de Gobierno Local se celebrarán previa convocatoria de la Alcaldía, pudiendo ser ordinarias o de periodicidad preestablecida y extraordinarias, que pueden ser, además, urgentes.

2. La convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias, a la que se acompañará el orden del día, se realizará con una antelación mínima de 24 horas, mediante la remisión de la misma a sus miembros.

3. Las sesiones extraordinarias de carácter urgente quedarán válidamente constituidas, con convocatoria previa no sometida a ningún plazo, cuando así lo decida la Alcaldía y exista el quórum necesario, si bien con carácter previo deberá ser declarada la urgencia por acuerdo favorable de la mayoría de sus miembros.

j) Kudeaketa: hondakinak biltzea, biltegiatzea, garraiatzea, balorizatzea eta ezabatzea, bai eta jarduera horiek zaintzea eta hondakinak uzteko edo isurtzeko lekuak zaintzea ere, behin itxita.

k) Berrerabilitzea: erabilitako produktu bat hasiera batean diseinatu zen helburu bererako erabiltzea.

l) Birziklatzea: ekoizpen-prozesu baten barruan, hondakinak eraldatzea, hasierako xede bererako edo beste xede batzuetarako; prozesu horien artean, konpostajea eta biometanizazioa daude, baina ez energia berreskuratzea dakarren errausketa.

m) Balorizatzea: hondakinetatik eskura daitezkeen baliabideak aprobetxatzeko aukera ematen duen prozedura oro, betiere, horietan ez bada giza osasuna arriskuan jartzen eta ez badira ingurumeneko kaltegarriak izan daitezkeen metodoak erabiltzen. Nolanahi ere, kontzeptu honetan barneratuko dira Batzordeak 1996ko maiatzaren 24an emandako Erabakiaren (96/350/EE) II.B eranskinean zerrendatutako prozedurak, baita gobernuak kasuan kasu onesten duen zerrendan agertzen direnak ere.

n) Ezabatzea: hondakinak isurtzea nahiz horiek erabat edo partzialki ezabatzea helburu duen prozedura oro, betiere, horietan ez bada giza osasuna arriskuan jartzen eta ez badira ingurumeneko kaltegarriak izan daitezkeen metodoak erabiltzen. Nolanahi ere, kontzeptu honetan barneratuko dira Batzordeak 1996ko maiatzaren 24an emandako Erabakiaren (96/350/EE) II.A eranskinean zerrendatutako prozedurak, baita gobernuak, hala badagokio, onetsiko duen zerrenda batean ager daitezkenak ere.

o) Aurrebilketa: hiri-hondakinatarako propio dauden edukiontzietatik hiri-hondakinak dituzten poltsak biltzeko eta hartzeko jarduera oro.

p) Bilketa: hondakinak jaso, sailkatu, multzoka jarri edo garraiatzeko prestatzeko egindako jarduera oro.

q) Gaikako bilketa: material birziklagarria (papera eta kartoia, beira, ontziak eta ontzien hondakinak) eta hartzitu daitezkeen material organikoa bereizten dituen bilketa-sistema, bai eta hondakinetan egon daitezkeen material balorizagarriak bereiz ditzakeen beste edozein bilketa-sistema ere.

r) Biltegiatzea: balorizatu edo ezabatu aurretik, hondakinak bilduta edukitzea gehienez ere bi urtez edo sei hilabetez hondakin arriskutsuak badira, betiere, arauz epe laburragoak ezartzen ez badira. Ez da kontzeptu horren barruan sartzen hondakinak xede bererako ekoizteko instalazioetan eta aipatu berri ditugun denbora-tarteetan baino laburragoetan aldi baterako uztea.

s) Transferentzia-estazioa: instalazio honetan hondakinak deskargatu eta bildu egiten dira, gero beste leku batera garraiatzeko, han balorizazioa egiteko edo ezabatzeko, aurretik multzokatuta edo multzokatu gabe.

t) Zabortegia: ezabatzeko instalazioa, lur azpian edo lurrazalean hondakinak uzteko.

u) Erraustegia: hondakinak erretzeko prestatutako instalazioa, energia berreskuratuta edo berreskuratuta gabe.

v) Lurzoru kutsatua: ezaugarri fisiko, kimiko edo biologikoak okerrera aldarazita dituen lurzorua, gizakiak sortu dituen izaera arriskutsuko osagaien eraginez, gizakiaren osasunerako edo ingurugirorako arriskutsua gerta litekeen kontzentrazioarekin, Gobernuak erabakitako irizpide eta estandarren arabera.

j) Gestión: la recogida, el almacenamiento, el transporte, la valorización y la eliminación de los residuos, incluida la vigilancia de estas actividades, así como la vigilancia de los lugares de depósito o vertido después de su cierre.

k) Reutilización: el empleo de un producto usado para el mismo fin para el que fue diseñado originariamente.

l) Reciclado: la transformación de los residuos, dentro de un proceso de producción, para su fin inicial o para otros fines, incluidos el compostaje y la biometanización, pero no la incineración con recuperación de energía.

m) Valorización: todo procedimiento que permita el aprovechamiento de los recursos contenidos en los residuos sin poner en peligro la salud humana y sin utilizar métodos que puedan causar perjuicios al medio ambiente. En todo caso, estarán incluidos en este concepto los procedimientos enumerados en el anexo II.B de la Decisión de la Comisión (96/350/CE) de 24 de mayo de 1996, así como los que figuren en una lista que, en su caso, apruebe el Gobierno.

n) Eliminación: todo procedimiento dirigido, bien al vertido de los residuos o bien a su destrucción, total o parcial, realizando sin poner en peligro la salud humana y sin utilizar métodos que puedan causar perjuicios al medio ambiente. En todo caso, estarán incluidos en este concepto los procedimientos enumerados en el anexo II.A de la Decisión de la Comisión (96/350/CE) de 24 de mayo de 1996, así como los que figuren en una lista que, en su caso, apruebe el Gobierno.

o) Prerrecogida: Toda operación consistente en la recogida y captación de las bolsas de residuos urbanos en los contenedores habilitados para ello

p) Recogida: toda operación consistente en recoger, clasificar, agrupar o preparar residuos para su transporte.

q) Recogida selectiva: el sistema de recogida diferenciada de materiales orgánicos fermentables y de materiales reciclables (papel y cartón, vidrio, envases y residuos de envases), así como cualquier otro sistema de recogida diferenciada que permita la separación de los materiales valorizables contenidos en los residuos.

r) Almacenamiento: el depósito temporal de residuos, con carácter previo a su valorización o eliminación, por tiempo inferior a los dos años o a seis meses si se trata de residuos peligrosos, a menos que reglamentariamente se establezcan plazos inferiores. No se incluye en este concepto el depósito temporal de residuos en las instalaciones de producción con los mismos fines y por períodos de tiempo inferiores a los señalados en el párrafo anterior.

s) Estación de transferencia: instalación en la cual se descargan y almacenan los residuos para poder posteriormente transportarlos a otro lugar para su valorización o eliminación, con o sin agrupamiento previo.

t) Vertedero: instalación de eliminación que se destine al depósito de residuos en la superficie o bajo tierra.

u) Incineradora: instalación de eliminación que se destine a la incineración de residuos con o sin recuperación energética.

v) Suelo contaminado: todo aquel cuyas características físicas, químicas o biológicas han sido alteradas negativamente por la presencia de componentes de carácter peligroso de origen humano, en concentración tal que comporte un riesgo para la salud humana o el medio ambiente, de acuerdo con los criterios y estándares que se determinen por el Gobierno.

II. TITULUA BILKETA-ZERBITZUA

1. KAPITULUA ETXEKO BILKETA

7. artikulua.—*Edukiontzien bidez etxez etxe biltzen diren hondakinak*

Ordenantza honi dagokionez, etxez etxe zabor-bilketaren barruan ondoko hondakin hauek sartuko dira:

TÍTULO II SERVICIO DE RECOGIDA

CAPÍTULO I RECOGIDA DOMICILIARIA

Artículo 7.—*Residuos objeto de la recogida domiciliaria mediante contenedores*

A los efectos de la presente Ordenanza, tendrá la consideración de recogida domiciliaria de basuras, la de los siguientes Residuos:

a) Etxeko kontsumo eta elikadurak sortutako hondakinak eta detritusak, ontziteria edo beira hondakinak, ontziak, enbalajeak, kartoiak, oinetako eta jantzien hondakinak, eta oro har, edozein etxetan sortutako zaborreria, aurrez jarritako egun, ordu eta lekuetan biltzeko, plastikozko edo antzeko poltsetan sartuta (animalia, euri edo beste arrazoiren batengatik zaborrak ez isurtzeko moduan itxita).

b) A atalean aipatutakoen antzeko jatorria dutenak, baina dendetan, industrietan eta zerbitzuetan sortuak, aurreko atalean adierazitako baldintzetan prestatuta.

c) A ataleko berberak, baina hauek jantoki, eskola, kuarter, ospitale, eraikin publiko, eliza, jolasteko gune eta abarretan sortuak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

d) Merkatu, feria, festa publiko eta antzekoen garbiketetatik sortutako hondakinak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

e) Kale-garbiketatik datozen hondakinak.

8. artikulua

Kanpoan geratzen dira, eta, beraz, etxez etxeko bilketan ez dira jaso beharko, honako hondakin hauek:

- Indusketa-produktuak, hareak, lurrak, industrietako errautsak, eta herri-lanetako nahiz lan pribatuak zaborrak.
- Edozein pneumatiko-mota, gurpil-azalak, industria-prozesuetako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, kolak, likido korrosiboak, koipeak eta olioak.
- Bidoiak, lata handiak, zumitzak eta txirbilak.
- Erabiltzen ez diren tresnak, autoen osagaiak, butano-bonbonak, etab.
- Erabiltzen ez diren saneamenduko eta eraikuntzako elementuak eta tresnak.
- Hildako animaliak eta klinika eta ospitaleetako hondakin infekzioso eta anatomikoak.
- Artikulu honetan zehatz-mehatz adierazi gabeko hondakinak eta bere ezaugarri bereziak direla-eta ohiko hondakin-bilketako zerbitzuak jaso ez ditzakeenak, baldin eta Mancomunitateak hala erabakitzen badu.

9. artikulua.—Derrigorreko zerbitzua

Mankomunitatea derrigortuta dago etxez etxeko hondakinen bilketa egitera, eta, hortaz, 7. artikuluan adierazitako materialak biltzeko ardura hartuko du.

10. artikulua.—Prestazioak

Zerbitzu honen eginbeharrak honako hauek dira:

- Hondakinak uzteko tokietatik edo edukiontzietatik hondakinak ibilgailuetara eraman eta hustu.
- Hustu ondoren, edukiontzia bere lekuetara itzuli.
- Lan hauen ondorioz bide publikora eroritako hondakinak jaso.
- Hondakinak transferentzia-estaziora eraman eta hustu, han trata ditzaten.
- Edukiontzia egutegi bati jarraituz garbitu, eta presakako beharrei erantzun.
- Mantentze-lanak egin, eta, beharrezkoa izanez gero, edukiontzia aldatu, edukiontzia edo haren elementuren bat apurtzen denean.
- Pisaketak, udalerrri bakoitzak bilketan emandako denbora eta zerbitzuarekin zerkusua duen beste edozein arazo edo gertaera kontrolatu.

a) Los detritus y desperdicios de la alimentación y consumo doméstico, residuos de cristal o vajilla, envases, embalajes, cartones, desperdicios de vestido y calzado y en general todo residuo producido normalmente en un domicilio y presentado para su recogida en el día, la hora y el lugar fijados, en bolsas de plástico u otro tipo, debidamente acondicionados y cerradas para evitar su vertido por rotura, lluvia, acción de animales sueltos etc.

b) Los de análoga naturaleza a los descritos en el apartado A, producidos en actividades comerciales, industriales y servicios, presentados y acondicionados en la misma forma indicada en el apartado citado.

c) Los mismos del apartado A, procedentes de comedores, escuelas, cuarteles, hospitales, edificios públicos, de culto, recreativos, etc., presentados y acondicionados de la misma forma que indica el apartado citado.

d) El detritus y productos de limpieza de mercados ferias, lugares de fiestas públicas, etc., presentados y acondicionados según se indica en el punto A.

e) Residuos procedentes de la limpieza viaria.

Artículo 8

Quedan excluidos, y por tanto, considerados como de recepción no obligatoria de la recogida domiciliaria de residuos o gestionada de manera específica:

- Productos de excavación, arenas, tierras, cenizas industriales y cualquier escombros tanto de obra pública como privada.
- Neumáticos de cualquier tipo, cubiertas, residuos plásticos de procesos industriales, barnices, pinturas, colas, líquidos corrosivos, grasas y aceites.
- Bidones, latas grandes, flejes y virutas.
- Aparatos en desuso, componentes de automóvil, bombonas de butano, etc.
- Aparatos y elementos de construcción y saneamiento en desuso.
- Animales muertos, restos anatómicos e infecciosos de clínicas y hospitales
- Otros residuos no especificados expresamente en el presente Artículo, que por sus características especiales, no puedan ser atendidos por el Servicio normal de Recogida de Residuos y así se resuelva por la Mancomunidad

Artículo 9.—Servicio obligatorio

La Mancomunidad está obligada a hacerse cargo de la recogida de residuos domiciliarios y se hará cargo de retirar los materiales especificados como de recepción obligatoria por parte del municipio. Siendo estos los señalados en el Artículo 7.

Artículo 10.—Prestaciones

La prestación de este servicio comprende las siguientes operaciones:

- Traslado de los residuos desde los lugares indicados o contenedores y vaciado de los mismos en los vehículos de recogida.
- Devolución de los elementos de contención, una vez vaciados a los puntos originarios.
- Retirada de restos de residuos caídos en la vía pública como consecuencia de estas operaciones.
- Transporte y descarga de los residuos en la Estación de Transferencia, para su posterior tratamiento.
- Limpieza periódica de los contenedores, así como necesidades urgentes.
- Mantenimiento y, en su caso, sustitución de los contenedores en caso de deterioro o ruptura del contenedor o de alguno de sus componentes.
- Control de pesajes, del tiempo invertido por cada municipio en la recogida y cualquier otra cuestión o incidencia del servicio.

11. artikulua.—Hondakinen jabegoa

Hiri-hondakinak sortzen dituztenek edo dauzkatenek ordenantza honetan jasotako baldintzetan jarri beharko dituzte Erakunde Kudeatzailearen esku, hau da, Lea-Artibaiko Mankomunitatearen esku, hondakinen jabetza har dezan une horretatik bertatik. Pertsona horiek ez dute erantzukizunik izango hondakin horiek eragin ditzaketan kalteengatik, baldin eta hondakinak uzterakoan ordenantza hau eta gainerako lege-arauak bete badituzte.

12. artikulua.—Zerbitzua ematea

Etxeko zaborren bilketa-mota guztien maiztasuna Mankomunitateak erabakiko du, udalerraren interesak kontuan hartuta.

13. artikulua.—Programazioa

Mankomunitateak urtero emango du jakitera bilketa-zerbitzuaren programazioa: egunak, ordutegiak eta bitartekoak. Hala ere, zerbitzuak izan ditzakeen beharren arabera, interes publikoari begira egokitzat jotzen dituen aldaketak egin ahal izango ditu mankomunitateak, aldez aurretik ordutegi, bilketa-erak edo maiztasun-aldaketan berri emanda. Dena den, larrialdi, ustekabe edo ezinbesteko egoeretan bidezko diren xedapenak emango ditu presidenteak. Halakoetan, zehaztapenak Alkatetza-bando baten bidez arautuko dira.

14. artikulua.—Larrialdiak

Larrialdi egoerak gertatzen direnean, direla gizarte-gatazkak, uholdeak edo ezinbesteko egoeratik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, eta udalak alde aurretik jakinarazten badu, bizilagunek ez dituzte aterako hondakinak zerbitzua bere onera etorri bitartean, edo Mankomunitateak bidezko aginduak eman bitartean.

I. ATALA

ZABOR-EDUKIONTZIAK

15. artikulua.—Hiri-hondakinen edukiontzia

Zonalde bakoitzean erabili beharreko edukiontzi-mota, kopurua eta horien kokapena udaletako zerbitzu teknikoetakoek erabakiko dute, Mankomunitatearekin koordinazioan arituta. Jabetza publikoa duten edukiontzia izanik, Mankomunitateak berritu edo ordeztu egingo ditu, hondatu ahala edo gaizki erabiltzeagatik zerbitzurako erabiltzeko moduan ez daudenean.

16. artikulua.—Pasabideak eta erreserba bereziak

Udalek, mankomunitatearekin koordinatuta, pasabide eta hiri espazioan erreserba bereziak ezarriko dituzte, edukiontzien karga eta deskargarako, eta haiek behar bezala kontserbatzeko beharrezko diren gainerako jardueretarako.

17. artikulua.—Garbiketa

Mankomunitatearen zerbitzuek edukiontzia barrutik eta kanpotik garbituko dituzte maiztasun jakin batekin, bai eta edukiontzi guztiak dauden lekuen inguruak ere.

18. artikulua.—Zabor-edukiontzia

Bilketa mankomunitatearen ontzi hermetikoen (edukiontzia) bidez egiten denean, erabiltzaileak behartuta daude higie- eta segurtasun-baldintzetan zaindu eta edukitzera; horrez gain, beren erruagatik, arduragabekeriagatik edo zuhurtzia faltagatik edukiontzia hondatzen badira, beren gain hartuko dute horiekiko arduraren betebeharrak izango dute bilketa-lekuetan jarritako babes-barrekiko eta marketikiko.

Debekatuta dago edukiontzia mugitzea eta/edo lekuz aldatzea, edozein dela arrazoia. Edukiontzien bat mugitu behar izanez gero, ezinbestekoa da udaleko zerbitzu teknikoetakoek edo Mankomunitateari jakinaraztea.

Artículo 11.—Propiedad residuos

Los productores o poseedores de Residuos Urbanos, deberán ponerlos en las condiciones que se determinan en esta Ordenanza, a disposición de la Entidad Gestora, Mancomunidad de Lea Artibai, quien adquirirá la propiedad de los mismos desde la entrega y recogida. Dichas personas quedarán exentas de responsabilidad por los daños que puedan causar tales desechos o residuos, siempre que en su entrega se haya observado la presente Ordenanza y demás normas legales.

Artículo 12.—Prestación del servicio

La Mancomunidad establecerá la recogida de basuras domiciliarias, en todas sus modalidades, con la frecuencia que considere más conveniente e idónea para los intereses del Municipio.

Artículo 13.—Programación

Los servicios de la Mancomunidad harán pública anualmente la programación prevista de días, horarios y medios para la prestación de los servicios de recogida; y de acuerdo con las necesidades del Servicio podrá introducir las modificaciones que, por motivos de interés público, tenga por conveniente, divulgándose con suficiente antelación, los cambios en el horario y la forma o frecuencia de prestación del servicio, a excepción de las disposiciones dictadas por el Presidente en situaciones de emergencia, caso fortuito o fuerza mayor. En estos casos las especificaciones de detalle se regularán mediante Bando del Alcalde.

Artículo 14.—Casos de emergencia

En aquellos casos considerados como emergencia, tales como conflictos sociales, inundaciones u otras situaciones de fuerza mayor en las que no sea posible prestar el servicio, y previa comunicación municipal, los vecinos se abstendrán de depositar sus residuos hasta que se normalice el servicio, o hasta que la Mancomunidad dicte las instrucciones oportunas.

SECCIÓN I

DE LOS CONTENEDORES DE BASURA

Artículo 15.—Contenedores de RU

El tipo de contenedores, el número de unidades a emplear en cada zona y su ubicación, será fijado por los servicios técnicos de los Ayuntamientos en coordinación con la Mancomunidad. Tratándose de elementos contenedores de propiedad pública, los servicios de la Mancomunidad procederán a su reparación o renovación conforme se vayan deteriorando o cuando hayan quedado inutilizados para el servicio por uso indebido.

Artículo 16.—Vados y reservas especiales

Los Ayuntamientos en coordinación con la Mancomunidad establecerán vados y reservas especiales del espacio urbano para la carga y descarga y demás operaciones necesarias para la correcta conservación de los contenedores.

Artículo 17.—Limpieza

Los servicios de la Mancomunidad realizarán la limpieza periódica de los contenedores por dentro y por fuera y los espacios colindantes en donde se ubican todos los contenedores..

Artículo 18.—Contenedores para basuras

Quando se efectúe la recogida mediante recipientes herméticos (contenedores) de la Mancomunidad, los usuarios tiene la obligación de conservarlos y mantenerlos en adecuadas condiciones de higiene y seguridad, siendo responsables del deterioro de los recipientes pueden sufrir por su culpa, negligencia o imprudencia. La misma obligación se establece para las barras protectoras y marcas fijadas de las zonas de recogida.

Queda prohibido el movimiento y/o desplazamiento de contenedores por cualquier razón. En caso de necesitar mover un contenedor se deberá avisar a los servicios técnicos municipales o a la Mancomunidad.

19. artikulua.—Edukiontzia lurperatuak

Mankomunitateko udalak lurpeko edukiontzia jarri ahalko dituzte beren lurralde-eremuko zenbait gunetan, baldin eta instalazio horiek eta mankomunitateak ulean-uean ezarritako ohiko bilketa-sistema, mantentze-lana eta garbiketa bateragarriak badira. Horrez gain, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Obraren eta hautatutako sistemaren instalazioaren inbertsioa eskaera egin duen udalak hartuko du bere gain.
- Bilketa-guneak non kokatu erabakitzeke eta instalazioek izan behar dituzten ezaugarriak hautatzeko, ezinbestekoa da mankomunitateko zerbitzu teknikoaren oniritzia edukitzea.
- Lurpeko gune bakoitzean instalatu beharreko edukiontzia-mota, edukiontzia-kopurua, eta bilketa-maiztasuna mankomunitateko zerbitzu teknikoekin adostu beharko da.
- Urbanizazio berrietan, lurpeko edukiontzietarako instalazioak eraiki behar badira edo horiek jartzeko guneak egokitu behar badira, sustatzaileak eta/edo udalak erabakiko du non kokatu edukiontzia eta zenbat jarri gune bakoitzean, Mankomunitateko zerbitzu teknikoaren oniritziarekin, betiere.
- Instalazioaren mantentze-lana udalak hartuko du bere gain. Mankomunitateak izango du, gainerako sistemetan bezala, instalazioan jarritako edukiontzia garbitzeko arduraren.
- Hondakin-gordailuen ahoak kolore eta ezaugarri jakinakoak izango dira, eta mankomunitateko zerbitzu teknikoek erabakiko dituzte horiek.
- Bilketak eragindako gaitzesak (deskargan denbora luzeago erabiltzeagatik) mankomunitateari ordainduko dio interesa duen udalak.
- Instalazioa irekitzeko sistema —eskuekin egin beharrekoa izan (giltza) zein automatikoa (urrutiko agintea) izan— mankomunitateko zerbitzu teknikoek onartu behar dute.
- Sistemak akatsen bat duelako ezin bada hiri-hondakin bilketa egin, udalak ahalik eta lasterren konpondu beharko du sistema, eta, bien bitartean, behar adina bitarteko jarri, zerbitzua egokia izan dadin.
- Denda gehiago zabaldu direlako, hiri-hondakin gehiago sortzen delako edo edozein dela arrazoi bilketa-gunea nahikoa ez dela ikusiz gero, dagokion udalak hartuko du bere gain gune hori handitzeko konpromisoa.
- Hautatutako instalazioek aukera izan beharko dute gunea bilketa-sistema berrietara egokitzeko (esate baterako, materia organikoaren gaikako bilketa).

II. ATALA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

20. artikulua.—Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizuna

Etxebizitza, merkataritza-establezimendu, biltegi-azoka, ikusizunetako lokal, ikastetxe, industria, osasun-establezimendu eta antzekoen jabeek edo erabiltzaileek zaborren eta gainerako hondakin bilketa-zerbitzua erabiltzeko eskubidea dute, eta adierazitako zerbitzura abonatuta egon behar dute nahitaez. Udalak hondakin asimilagarrien bilketatik kanpo utzi ditzake enpresa handiak, hondakin horien osagaiengatik edo kopuruagatik oso zaila gertatzen denean bilketa-lana egitea, eta enpresak berak bere etxe-hondakinak eta asimilagarriak transferentzia-plantara eramanez ditzakenean.

21. artikulua.—Hiri-hondakin zerbitzua erabiltzeko arauak

1. Zerbitzua erabiltzen dutenek etxeko hondakinak plastikozko poltsetan atera behar dituzte kalera. Poltseta horiek, behar bezala itxita, mankomunitateak horretarako propio jarritako edukiontzia normalizatuetan utziko dira.

Artículo 19.—Contenedores soterrados

Los Ayuntamientos integrados en la Mancomunidad podrán optar por la instalación de contenedores soterrados en determinados puntos de su ámbito territorial, siempre que dicha instalación resulte compatible con el sistema ordinario de recogida, mantenimiento y limpieza que en cada momento haya adoptado la mancomunidad, debiendo cumplir las siguientes condiciones:

- La inversión de la obra e instalación del sistema elegido será a cargo del Ayuntamiento solicitante.
- Para la ubicación de los puntos de recogida y características de la instalación, será necesario el visto bueno de los servicios técnicos de la Mancomunidad.
- Tanto el tipo como el número mínimo de contenedores a colocar en cada uno de los puntos soterrados, como la frecuencia de su recogida, se acordará con los servicios técnicos de la Mancomunidad.
- En nuevas urbanizaciones en las que se vayan a construir instalaciones para contenedores soterrados o habilitar espacios para la ubicación de estos, deberá ser el promotor y/o Ayuntamiento el que determine la ubicación y el número de contenedores a colocar en cada punto, con el visto bueno de los servicios técnicos de la Mancomunidad.
- El mantenimiento de la instalación será por cuenta del Ayuntamiento. La Mancomunidad se responsabilizará, como en todos los casos, de la limpieza de los contenedores alojados en la instalación.
- Las bocas de depósito de residuos deberán identificarse con los colores y características que determinen los servicios técnicos de la Mancomunidad.
- El sobrecoste de recogida (por aumento del tiempo empleado en la descarga), deberá ser abonado a la Mancomunidad por el Ayuntamiento interesado.
- El sistema de apertura de la instalación tanto manual (llave) como automático (mando a distancia) deberá ser el aprobado por los servicios técnicos de la Mancomunidad.
- En caso de que por deficiencias del sistema no pudiera realizarse la recogida de Residuos Urbanos, el Ayuntamiento deberá reparar en el menor tiempo posible el sistema y poner los medios necesarios para garantizar, entre tanto, un servicio correcto.
- El Ayuntamiento correspondiente deberá comprometerse a la ampliación del punto, en los casos en que este haya devenido insuficiente, por apertura de nuevos comercios, aumento de la generación de los residuos urbanos o cualquier otra circunstancia.
- Las instalaciones elegidas deberán contemplar una posible adaptación del punto a nuevos sistemas de recogida (por ejemplo, recogida selectiva de materia orgánica).

SECCIÓN II

DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LOS USUARIOS

Artículo 20.—Derechos, obligaciones y responsabilidad de los usuarios

Todo propietario o usuario de una vivienda, establecimiento comercial, almacén mercado, local de espectáculos, centro de enseñanza, industria, establecimiento sanitario, etc., tiene la obligación de abonarse al Servicio de Recogida de basuras y asimilables y derecho a utilizarlo. A las grandes empresas, el municipio, puede excluirles de la recogida de residuos asimilables cuando su composición o la cantidad de residuos dificulten extraordinariamente la recogida de los mismos y la empresa esté en condiciones de transportar sus residuos domiciliarios y asimilables a la Planta de Transferencia.

Artículo 21.—Normas de uso del servicio de RU

1. Los usuarios del servicio están obligados a depositar los residuos domiciliarios en bolsas de plástico. Estas bolsas cerradas se depositarán, posteriormente, dentro de los contenedores normalizados que la Mancomunidad ha destinado a tal efecto.

2. Beraz:

- Poltsak ondo itxi behar dira, jatorrik izan ez dezaten. Zaborrak ez badira behar bezala ateratzen, eta, horren ondorioz, isurketaren bat gertatzen bada, erabiltzailea bera izango da eragindako zikinkeraren erantzule.
- Debekatuta dago hondakin likidoak edo urtzeko modukoak dituzten zaborrak ateratzea.
- Erabat debekatuta dago zaborra poltsetan sartu gabe ateratzea, edo baldeetan, paketetan, kutxetan edo antzekoetan ateratzea.
- Debekatuta dago hondakinak bide publikoan uztea. Erabiltzaileak behartuta daude adierazten zaien tokietan eta moduan uztera hondakinak.
- Ezingo dira hondakinak bide publikoan manipulatu.
- Debekatuta dago edukiontzia edo bilketa-lekuak hondatzea edo desitxuratzea.

III. ATALA**BERARIAZKO ARAUAK ZENBAIT JARDUERATARAKO****22. artikulua**

Zenbait jarduera ekonomikor eraldatu egin lezake hondakinak biltzeko zerbitzua. Arrazoi horregatik, ondorengo jarduera hauek arautegi berezia egin da:

- A) Merkataritza, oro har.
- B) Ostalaritza, Elikadura eta zerbitzua.
- C) Edariak eta elikagaiak, eta jolas-industriak.
- D) Biltegiak, ekoizpen-industriak, zerbitzuak.
- E) Arrandegiak.

Edukiontzia erabiltzeko arauak dagokienez, horiek guztiak gainerako erabiltzaileek dituzten berberak dituzte.

23. artikulua.—Ontziak eta enbalajeak

Zurezko enbalajeak-eta, paper-kartoizkoak izan ezik (hurrengo artikuluan eta II. kapituluaren I. atalean ezarritakoa aintzat hartuta), edukiontzietan uzteko tolestu edo zatitu egin behar dira eta gero poltsetan sartu, beti ere, hondakin horien ezaugarriak edukiontzia behar bezala erabiltzeko eragozpenik eragiten ez badute. Horrez gain, adierazitako hondakin horiek ez dira utziko, ezta pilatu ere, edukiontzietatik kanpo.

24. artikulua

Paper eta kartoizko ontziak eta enbalajeak material horietarako propio jarritako edukiontzietan utzi behar dira, II. kapituluaren I. atalean ezarritakoari jarraiki.

25. artikulua

Debekatuta dago baldeak, bidoiak eta Mankomunitateak homologatu gabeko bestelako elementuak erabiltzea, bai eta hondakinak bere horretan uztea edo isurtzea ere.

D) motako jarduerak: biltegiak, ekoizpen-industriak, zerbitzuak (21. artikulua).

26. artikulua

Hiri-hondakinak ondo itxitako eta jatorrik gabeko poltsetan eta mankomunitateak homologatutako edukiontzietan soilik utzi behar dira. Edukiontzia horiek erabiltzaileak berak eskuratu eta garbituko ditu. Edukiontzia hustu eta gero, ezin izango da bide publikoan utzi jardueraren instalaziora eramateko behar den denbora baino luzeago.

27. artikulua

Ontziak mankomunitateak esandako bilketa-gunera atera behar dira, eta, gainera, ondo itxita eta mankomunitateak erabiltzeko egun eta ordutegiaren barruan.

2. Por lo tanto:

- Las bolsas han de estar cerradas herméticamente, de modo que no se produzcan vertidos. Si, como consecuencia de una deficiente presentación de las basuras, se produjeran vertidos, el usuario causante será responsable de la suciedad ocasionada.
- Se prohíbe el depósito de basuras que contengan residuos líquidos o susceptibles de licuarse.
- Se prohíbe terminantemente el depósito de basuras a granel o en cubos, paquetes, cajas y similares.
- Se prohíbe el abandono de residuos en la vía pública. Los usuarios están obligados a depositarlos con arreglo a los lugares y forma señalados.
- No se permite la manipulación de basuras en la vía pública.
- Queda prohibido cualquier actuación que deteriore el contenedor o las zonas de recogida funcional o estéticamente.

SECCIÓN III**NORMAS ESPECÍFICAS PARA DIVERSAS ACTIVIDADES****Artículo 22**

Se establece una normativa específica que con carácter obligatorio, regula la utilización de este servicio por parte de los usuarios que dada su actividad económica pueden generar distorsiones del servicio. Estas actividades son:

- A) Comercio en general.
- B) Hostelería, Alimentación y servicio.
- C) Bebidas y Comidas e Industrias Recreativas.
- D) Almacenes, Industrias productivas, Servicios.
- E) Pescaderías.

Para todos ellos las normas de uso de los contenedores serán exactamente igual que para el resto de los usuarios.

Artículo 23.—Envases y embalajes

Los embalajes de madera u otros, excepto papel-cartón, sin perjuicio del Artículo siguiente y de lo establecido en la Sección I del Capítulo II, deberán ser plegados o troceados e introducidos en bolsas y depositados en los contenedores específicos de forma que por sus características no produzcan una extorsión al uso correcto de los mismos, no pudiendo apilarse ni depositarse nunca fuera de ellos.

Artículo 24

Los envases y embalajes de papel y cartón deberán ser depositados en sus contenedores específicos, conforme a las normas que se establecen en la Sección I del Capítulo II.

Artículo 25

Queda prohibido el uso de cubos, bidones u otros elementos no homologados por la Mancomunidad, así como el depósito o vertido de residuos a granel.

Para las actividades incluidas dentro del tipo D: almacenes, industrias productivas y servicios (artículo 21).

Artículo 26

Los Residuos Urbanos deberán ser depositados en bolsas perfectamente cerradas y sin que escurran líquidos, depositando éstas única y exclusivamente en contenedores homologados por la Mancomunidad y cuya adquisición y limpieza será por cuenta del usuario. Una vez vaciado el contenedor no podrá permanecer en la vía pública más del tiempo necesario para su traslado a las dependencias de la actividad.

Artículo 27

Los recipientes se presentarán en el punto de recogida determinado por la Mancomunidad perfectamente cerrado, exclusivamente los días señalados y respetando el horario establecido.

28. artikulua

Mankomunitateak hondakin-bilketatik kanpo utz ditzake enpresa handiak edo industrialdeak, hondakin horien osagaiengatik edo kopuruagatik oso zaila denean bilketa-lana egitea.

29. artikulua

Hondakin-mota hauek ez dira etxeko zabor edo antzekotzat hartzen:

- A) Tamaina, pisu eta gainerako ezaugarriengatik zerbitzuaren organo kudeatzaileak onartzen ez dituenak.
 - B) Pneumatikoak, gurpil-azalak, prozedura industrialetako plastikozko hondakinak, biltzeko enbalajeen plastikozkoak, bernizak, pinturak eta horien ontziak, hareak eta errautsak, produktu koipetsuak, zumitzak, txirbilak, bidioiak, etab.
 - C) Hondakin toxiko arriskutsuen legearen eranskinean adierazten diren elementu kutsagarriak dituzten hondakin-gai guztiak. Hondakin horiek aipatutako legeak xedatzen duen kudeaketa izango dute.
 - D) Erradiaktiboak.
 - E) Hondakin sanitario ez-asimilagarriak.
 - F) Hildako animaliak.
- B, C, E motako jarduerak (22. artikulua).*

30. artikulua

Araudi berezi hau dute:

- Hiri-hondakin guztiak —berriro erabili edo berreskuratu ezin diren enbalajeak eta ontziak barne— poltsetan atera behar dira. Poltza horiek, ondo itxita eta jariorik gabe, edukiontzian utziko dira.
- Egunean hiri-hondakin asko sortzen duen ekoizleak edo hiri-hondakin asko dituenak derrigorrean izan behar ditu berriratzko edukiontzia. Edukiontzi horiek erabiltzaileak berak eskuratu eta garbituko ditu. Edukiontzia hustu eta gero, ezin izango da bide publikoan utzi jardueraren instalaziora eramateko behar den denbora baino luzeago.

II. KAPITULUA
BILKETA BEREZIAK

I. ATALA
GAIKAKO BILKETA

31. artikulua

Edukiontzi eta Hondakinaren apirilaren 24ko 11/1997 Legeak eta Hondakinaren apirilaren 21eko 10/1998 Legeak sustatu egiten dute hondakinak berrerabil eta berreskura daitezen, eta, horrez gain, prebentzio-politika eraginkorra behar dela adierazten dute; hori guztia, hondakinak aprobetxatzeko eta energia-baliabideak eta lehen-gaiak optimizatzeko.

32. artikulua

Aurreko artikuluan ezarritakoari dagokionez, mankomunitateak bere esparruan gaikako bilketa antolatu ahal izango du eta, era berean, erabiltzaileei eskatu, hain zuzen, gaika edo ontzi berezietan utz ditzatela, aprobetxa daitezkeen edo berezita bildu nahi diren hondakinak. Era horretako hondakinak edukiontzi berezietan utziko dira, ondoren birziklatu ahal izateko.

33. artikulua.—Paperaren eta kartoiaren bilketa (edukiontzi urdina)

Aurreko artikuluetan adierazitako helburuak lortzeko, papera eta kartoa biltzeko edukiontzi bereziak jarriko dira.

34. artikulua

Zonalde bakoitzean erabili beharreko edukiontzi-mota, erabilerakopurua eta horien kokapena udalek erabakiko dute, mankomunitatearekin koordinatuta.

Artículo 28

A las grandes empresas o polígonos industriales, la Mancomunidad puede excluirlos de la recogida de residuos, cuando su composición o la cantidad de residuo dificulten extraordinariamente la recogida de los mismos.

Artículo 29

No tendrá consideración de basura domiciliar y análoga naturaleza:

- A) Los que por su volumen, peso y demás características no fuesen admitidos por el órgano gestor del servicio.
- B) Neumáticos, cubiertas, residuos plásticos de procesos industriales, plástico de embalaje, barnices, pinturas y sus envases, arenas y cenizas, productos grasos, flejes, virutas, bidones etc.
- C) Todos los materiales residuales que contengan algún contaminante que figure en el Anexo de la Ley de R.T.P.s y que tendrán la gestión que marca esta ley.
- D) Radiactivos.
- E) Residuos Sanitarios no asimilables.
- F) Animales muertos.

Para las actividades incluidas dentro del tipo B, C, E (art. 22).

Artículo 30

Rige la siguiente normativa específica:

- Todos los Residuos Urbanos, incluso envases y embalajes no reutilizables o no recuperables, deberán ser depositados en bolsas y perfectamente cerradas sin que escurran líquidos, introduciendo éstas en el contenedor.
- Todo productor o poseedor de R.U. que genere gran cantidad de residuos al día estará obligado a disponer de contenedores específicos cuya adquisición y limpieza será por cuenta del usuario. Una vez vaciado el contenedor no podrá permanecer en la vía pública más del tiempo necesario para su traslado a las dependencias de la actividad.

CAPÍTULO II
RECOGIDAS ESPECIALES

SECCIÓN I
DE LA RECOGIDA SELECTIVA

Artículo 31

La Ley 11/97, de 24 de abril de envases y residuos y la Ley 10/98, de 21 de abril, de Residuos, establece los objetivos de fomento de la reutilización, de la recuperación de los residuos y de la necesidad de una eficaz política de prevención, en orden todo ello aun aprovechamiento de los residuos y una optimización de los recursos energéticos y de materias primas.

Artículo 32

A los efectos de lo establecido en el Artículo anterior la Mancomunidad podrá disponer en su ámbito de influencia, recogidas selectivas solicitando de los usuarios que presenten por separado o en recipientes especiales aquellos residuos susceptibles de distintos aprovechamiento, o cuya recogida específica se considere conveniente. Este tipo de residuos específicos se depositarán en los correspondientes contenedores para su posterior reciclaje.

Artículo 33.—Recogida selectiva de papel y cartón (Contenedor azul)

Para conseguir los fines de los Artículos anteriores se instalarán contenedores específicos de recogida de papel y cartón.

Artículo 34

El tipo de contenedores, el número de utilidades a emplear en cada zona y su ubicación, será fijado por los Ayuntamientos en coordinación con la Mancomunidad.

35. artikulua.—Erabiltzeko arauak

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek derrigorrean edukiontzi horietan utzi behar dute papera zein kartoia.
2. Kartoia sortzen dutenek, edukiontzietan utzi baino lehen, kartoia zaitu egingo dute, behar bezala ez erabiltzeagatik edukiontzien funtzioa eragotzi ez dadin.
3. Debebatuta dago edukiontzia ondoan uztea papera eta kartoia; beti sartu behar dira edukiontzian. Beteta badago, hurbil dagoen beste bat bilatu eta han sartu behar da.
4. Debebatuta dago papera eta kartoia ez den beste edozer sartzea.
5. Mota horretako hondakinak edozein ordutan atera daitezke, baldin eta ez bazaio bizilagunen ongizateari kalterik eragiten.

36. artikulua

Dendetako kartoiaren gaikako bilketa.

Aurreko artikuluetan ezarritako helburuak lortzeko, unean dauden edukiontzi berberak edo edukiontzi-gune berberak erabiliko dira.

37. artikulua.—Erabiltzeko arauak

1. Propio ezarritako edukiontzietan utzi behar dute kartoia zerbitzua erabiltzen dutenek.
2. Ahalik eta leku gutxien hartzen duela utzi behar dute kartoia zerbitzuaren erabiltzaileek; hau da, tolestuta eta txukun.
3. Kartoia adierazitako tokietan utziko da, 20:00etatik 21:00etara, honako hauetan izan ezik: larunbatetan (13:00etatik 14:00etara utzi behar baita), igandeetan, jaiegunetan, eta Eguberri eta Urte Berri bezperetan.

38. artikulua.—Ontzien bilketa (edukiontzi horia)

Aurreko artikuluetan adierazitako helburuak lortzeko, ontziak biltzeko edukiontzi bereziak jarriko dira.

39. artikulua.—Erabilera-arauak

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek derrigorrean utzi behar dituzte ontziak edukiontzi horietan.
2. Honako ontzi-mota hauek utzi ahalko dira: latak, plastikozkoak eta tetrabrikak.
3. Debebatuta dago edukiontzia ondoan uztea ontziak; beti sartu behar dira edukiontzian.
4. Debebatuta dago adierazitakoa ez den beste hondakin-mota bat sartzea.
5. Mota horretako hondakinak edozein ordutan atera daitezke, baldin eta ez bazaio bizilagunen ongizateari kalterik eragiten.

40. artikulua.—Beiraren bilketa

Aurreko artikuluetan adierazitako helburuak lortzeko, beira biltzeko edukiontzi bereziak jarriko dira.

41. artikulua.—Erabilera-arauak

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek derrigorrean utzi behar dute beira edukiontzi horietan.
2. Debebatuta dago edukiontzia ondoan uztea beira; beti sartu behar da edukiontzian.
3. Debebatuta dago adierazitakoa ez den beste hondakin-mota bat sartzea.
4. Mota horretako hondakinak edozein ordutan atera daitezke, baldin eta ez bazaio bizilagunen ongizateari kalterik eragiten.

42. artikulua.—Ostalaritzako beira. VACRI sistema

Edukiontziak duen beso hidraulikoari egokitzen zaion balde bat jarriko du mankomunitateak ostalaritzako jarduerak dituztenen esku. Horren bidez, baldea edukiontzia lotu eta gero, indar askorik egin gabe hustu/irauli ahalko dute erabiltzaileek.

Artículo 35.—Normas de uso

1. Los usuarios del servicio están obligados a depositar el papel y cartón dentro de estos contenedores.
2. Los productores de cartón deberán trocear éste, para posteriormente introducirlo en los contenedores de forma que no saturé por mal uso el funcionamiento del mismo.
3. Se prohíbe depositar papel y cartón junto a los contenedores, debiendo introducirse siempre dentro de los mismos. En caso de estar completo se deberá de buscar otro cercano y depositarlo ahí.
4. Se prohíbe depositar otro tipo de residuos que no sea papel cartón.
5. Este tipo de residuo se depositará horario libre, siempre y cuando no se altere el bienestar del vecindario.

Artículo 36

Recogida selectiva de cartón comercial

Para conseguir los fines de los Artículos anteriores se deberán de utilizar los mismos contenedores o puntos de contenedorización existentes actualmente.

Artículo 37.—Normas de uso

1. Los usuarios del servicio están obligados a depositar el cartón dentro de los contenedores habilitados para ello
2. Los usuarios del servicio deberán depositar el cartón de forma que ocupe el menor volumen posible, plegados y ordenados.
3. El cartón deberá ser depositado en los lugares indicados, entre las 20:00 y las 21: horas excepto los sábados (que se depositarán entre la 13:00 y las 14:00horas), domingos y festivos y víspera de Navidad y Año Nuevo.

Artículo 38.—Recogida selectiva de envases (contenedor amarillo)

Para conseguir los fines de los Artículos anteriores se instalarán contenedores específicos de recogida de envases.

Artículo 39.—Normas de uso

1. Los usuarios del servicio están obligados a depositar los envases en estos contenedores.
2. Se podrán depositar los siguientes tipos de envases: latas, plástico y tetrabrik.
3. Se prohíbe depositar envases junto a los contenedores, debiendo introducirse siempre dentro de los mismos.
4. Se prohíbe depositar otro tipo de residuos que no sea el indicado.
5. Este tipo de residuo se depositará horario libre, siempre y cuando no se altere el bienestar del vecindario.

Artículo 40.—Recogida selectiva de vidrio

Para conseguir los fines de los Artículos anteriores se instalarán contenedores específicos de recogida de vidrio.

Artículo 41.—Normas de uso

1. Los usuarios del servicio están obligados a depositar el vidrio en estos contenedores.
2. Se prohíbe depositar vidrio junto a los contenedores, debiendo introducirse siempre dentro de los mismos.
3. Se prohíbe depositar otro tipo de residuos que no sea el indicado.
4. Este tipo de residuo se depositará horario libre, siempre y cuando no se altere el bienestar del vecindario.

Artículo 42.—Vidrio de hostelería. Sistema VACRI

La Mancomunidad pondrá a disposición de las actividades de hostelería un cubo adaptable a un brazo hidráulico ubicado en el contenedor, de tal manera que los usuarios puedan vaciarlo/volcarlo, una vez enganchado, sin hacer excesiva fuerza.

1. Debe katuta dago botilak eta gainerako beirak edukiontzien ondoan kutzetan sartuta uztea.

2. Debe katuta dago beira —edukiontzi berezietan utzi beharrekoa— eta jardueraren ondorioz sortzen diren bestelako hondakin-motak nahastea.

II. ATALA

ALTZARIEN, ETXEO TRESNERIAREN ETA TRASTE ZAHARREN BILKETA

43. artikulua

Altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak biltzeko, doako zerbitzu berezia jarri du Lea-Artibaiko Mankomunitateak.

44. artikulua

Zerbitzu horrek bere baitan hartzen ditu edozein motatako altzariak, etxeko tresneria eta traste zahar, etxetresna eta tresna elektronikokoak, baldin eta haiek maneiatzeko baliabide mekanikorik erabili behar ez badu; hau da, garabi, polea eta antzekoak behar ez baditu. Era berean, hondakin horiek garraiatzeko prestatuta utzi behar dira, jaso ahal izateko. Bilketa-mota horretarako, alde zuzenetik jakinarazi egin behar da. Hau da, zerbitzuaren erabiltzaileek telefonozenbaki batera deitu eta mankomunitatearekin (edo horrek zerbitzua emateko kontratatzen duen enpresarekin) adostu behar dute eguna, ordua eta zein tokitan utziko dituzten gehiago nahi ez dituzten tamaina handiko hondakinak.

1. Debe katuta dago altzariak eta gainerakoak mankomunitateko zerbitzu-takoek jarritako egun, ordutegi eta tokitik kanpo uztea.

2. Debe katuta dago mota horretako hondakinak bide publikoetan, edo orube edo terreno pribatu zein publikoetan uztea.

III. ATALA

PILAK

45. artikulua

Pilak (ohiko formatukoak eta botoi-modukoak) aurrebilketarako ezarritako tokietan utziko dira, mota horretako materialak saltzen dituzten establezimenduetan; zenbait kasutan, bide publikoan ere jarriko dira horretarako propio instalatutako edukiontziak.

Mankomunitateak herritarrei jakinaraziko die non dauden zehatz-mehatz pilak uzteko tokiak. Pilak biltzeko zerbitzua duten establezimenduek, mankomunitateak jakinarazi ondoren, hiru hileko eramango dituzte udal-bulegoetara bildutako pilak.

IV. ATALA

ETXEO OLIOA

46. artikulua

Aurreko artikuluetan ezarritako helburuak lortzeko, olioak biltzeko edukiontzi bereziak jarri dira herritarren eskura.

47. artikulua.—*Erabilera-arauak*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek edukiontzi horietan utzi behar dute etxeko olioak nahitaez.

2. Edozein motatako ontzitan sar daiteke olioak (hobe, plastikozkoetan) eta ondo itxi behar da.

3. Debe katutako dago olioak edukiontzietan isurtzea, ontzian sartu gabe.

4. Debe katuta dago edukiontziaren ondoan uztea olioak; beti sartu behar da edukiontzian.

5. Debe katuta dago adierazitakoa ez den beste hondakin-mota bat sartzea.

6. Mota horretako hondakinak edozein ordutan atera daitezke, baldin eta ez bazaio bizilagunen ongizateari kalterik eragiten.

1. Queda prohibido dejar las botellas y demás vidrios en cajas fuera del contenedor.

2. Queda prohibido mezclar residuos de vidrio, que luego se depositen en los contenedores específicos, con cualquier otro tipo de residuos producido en la actividad.

SECCIÓN II

DE LA RECOGIDA DE MUEBLES, ENSERES DOMÉSTICOS Y TRASTOS VIEJOS

Artículo 43

La Mancomunidad de Lea Artibai ha establecido un servicio de recogida especial de muebles, enseres domésticos y trastos viejos con carácter gratuito.

Artículo 44

